



KERIK GABEKO GAZTEAK 2019-2020

Lehiaketarako oinarriak

IRUDI BAT SORTZEKO LEHIAKETA

Kerik Gabeko Gazteak (KGG) ekimenaren barruan, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko Zuzendaritzak irudien lehiaketa bat antolatu du. Izena emateko **azken eguna** 2019ko **abenduaren 20a da**.

1. XEDE

Lehiaketan, argazki edo argazki-konposizio bat sortu behar da: hurrengo atalean aipatzen den gaiarekin lotuta egon behar du, eta gazte jendea izan behar du jomuga

2. GAIA

2019-2020 ikasturterako, lehiaketaren gaia "**Tabakoa eta jarduera fisikoa**" izango da. Lanak osatuko dituzten **elementu guztiak** norberak sortuak izan behar dira, editatuta edo ez, eta testu labur edo eslogan osagarri bat gehitu daiteke.

3. PARTE-HARTZAILEAK

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako **LHko6., DBHko 1. eta 2.** gelek parte har dezakete.

4. LANEN EZAUGARRIAK

Irudiek bigarren oinarrian azaldutako gaiari buruzkoak izan behar dute, eta betekizun hauek konplitu beharko dituzte:

- Lanak osatuko dituzten **elementu guztiak** norberak sortuak izan behar dira, eta berariaz debekatzen da egileek landuak ez diren argazkiak, **argazki-konposizioak eta beste elementu batzuk** erabiltzea.



- **Marka komertzialen, benetako karaktereen edo komikien izenak eta / edo marrazkiak dituztenak ezin dira lehiatu.**
- **Iraingarriak, bortitzak eta / edo mezu sexistak erabiltzen dituztenek ezin dute lehiatu.**
- **Testua gehituz gero, gomendagarria da gaixotasun, heriotza, ezintasun edo antzeko alderdiak islatzen ez dituzten mezu positiboak erabiltzea.**
- **Gela bakoitzak bost argazki edo argazki-konposizio desberdin aurkez ditzake**, gehienez.
- **Aurkeztutako lanak editatzeko, edizio grafikorako edozein programa erabil daitezke, eta beharrezkoa da jpg / jpeg formatuan aurkeztea.**

5. LEHIAKETAREN GARAPENA

- Lehiakidean parte hartzen duten ikastetxeek lanak bidali beharko dituzte **2020ko apirilaren 3an arte** (barne) helbide honetara kerik-gabeko-gazteak@euskadi.eus

6. LANEN BALIOESPENA

Epaimahaiak faktore hauek izango ditu kontuan:

- Obrak ekimenaren xedea eta gaia adieraztea.
- Transmittzen den mezua originala izatea.
- Edukiak eta baliabide espresiboak eta artistikoak sormenezkoak eta originalak izatea.
- Kritikoak izatea tabakoaren interesekin eta industriarekin.
- Irudiak, eta —hala badagokio— testuak gazte jendearentzat egokituta egotea.

Epaimahaiak sari guztiak ez emateko eskubidea du, bai eta lehiaketan inor ez saritzekoa ere.

Epaimahaiaren erabakia zehazten den moduan jakinaraziko zaio gela irabazleari. Erabakiaren berri emango zaie ikastetxeei.

7. BUKAERA

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri guztiak onartu beharra dakar.



Aurkezten diren lan guztiak KGGren jabetzakoak izango dira; beraz, KGGk lan horiek zabal ditzake, egokituz jotzen dituen bide eta euskarriak baliatuta, ekimena hedatzeari dagokionez.

Sariak jendaurreko ekitaldi batean emango dira. Ekitaldiaren berri emango zaie ikastetxeei.

8. SARIAK

Aurkeztutako lanaren arabera, Heziketa-zikloa bakoitzeko eta Lurralde Historiko bakoitzeko bana sari bat emango da.

Sariak **2020 maiatzaren 29an**, Kerik Gabeko Astearekin bat egiteko.

Sari hauek izango dira:

- Jarduera ludiko bat gela irabazle osoarentzat.
- Programan parte hartzen duten ikasle guztiek jasoko dute oparia, Euskal Autonomia

Erkidegoan saritu duten logoa duela.

Saria onartzeak berekin dakar Osasun Sailari lagatzea lana ustiatzeko eta edozein euskarri edo baliabidetan erreproduzitzeko eskubideak, baita jabetza intelektualaren eskubidea lagatzea ere, eskusibotasunez eta mugagabe, hain zuzen.

Saria onartzeak berekin dakar Osasun Sailari lagatzea lana ustiatzeko eta edozein euskarri edo baliabidetan erreproduzitzeko eskubideak, baita jabetza intelektualaren eskubidea lagatzea ere, eskusibotasunez eta mugagabe, hain zuzen.